

Proiektua: LIFE IREKIBAI. Ibai irekiak: *Nafarroak eta Gipuzkoak partekatzen dituzten ibaien konektibitate eta habitaten hobekuntza (LIFE 14 NAT/ES/00186)*

**BILERA AKTA – Lan Taldearen 2. Tailerra. "Espezieen jarraipena"**

<p>EGUNA: 2016ko maiatzaren 19a LEKUA: Berako Beralandeta gela HASIERA: 17:00 AMAIERA: 20:00etan</p>	<p><b>HELBURUA:</b> Elkarrekin berrikustea, kartografia eta ekintzen fitxak erabiliz, espezieen jarraipenari dagozkion jarduketak, eta zalantza oro argitzea. Neurri horiek eztabaidatu eta aztertzea, eta bakoitzak bere ikuspuntuaren araberako proposamenak egitea, neurriak hobeki ezartzeko alderdien inguruan.</p>
------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

**Bertaratuak**

Maite	Arzuaga	Foru Administrazioa	Ikastetxeak	TOKI ONA BHI BERA	Bera
Mª Sol	Taberna Irazoqui	Foru Administrazioa	Ikastetxeak	TOKI ONA BHI BERA	Bera
Martín	Urrutia	Foru Administrazioa	Ikastetxeak	MENDAUR DBH Doneztebe	Doneztebe
Xabier	Petirena	Foru Administrazioa	Mendizainak	Ingurumeneko Mendizaintza	Oieregi
Iñigo	Agesta Latasa	Toki Administrazioa	Garapen Agentziak	CEDERNA - GARALUR.	Lesaka
Amaia	Angulo Rodeles	Elkartek, Lanbide Elkargoak eta Unibertsitatea	Lanbide Elkartek	SIBIC. Sociedad Ibérica de Ictiología	Iruñea
Imanol	Luzuriaga Jauregi	Pertsona interesatuak	Ibaiertzeko auzokidea	Ibaiertzeko auzokidea	Donamaria
Alfredo	Zugarramurdi Santesteban	Pertsona interesatuak	Ibaiertzeko auzokidea	Ibaiertzeko auzokidea	Doneztebe
Sofia	Sapuppo	Pertsona interesatuak	Ibaiertzeko auzokidea	Ibaiertzeko auzokidea	Doneztebe
Carlos	Gallo	Arrantza	Arrantzalea	Izokin arrantzalea	Zangoza
Lorentxo	Jaurena	Arrantza	Arrantzale Elkartek	Berako Ehiza eta Arrantza Elkartea	Bera
Prudencio	Quiroga	Arrantza	Arrantzale Elkartek	Berako Ehiza eta Arrantza Elkartea	Bera
Jorge	Teniente Vallinas	Arrantza	Arrantzale Elkartek	AEMS Ríos con Vida	Sarriguren
Manuel	Germán	Arrantza	Arrantzale Elkartek	ANAPAM. Asoc. Nav. Pescadores a Mosca	Burlata
Iñigo	Ballarena Galarregui	Industria sektorea	Minihidraulikoak	Balga Energiak, S.L. (Minicentral de Navasturen	Elizondo
Rubén	Balsategui	Industria sektorea	Minihidraulikoak	Promotora Aratz 2011. S.L Central Irun-Endara (Las Nazas)	
Miguel Angel	Belza Pérez	Industria sektorea	Errotak	Donamariako Errota	Donamaria
José	Ardaiz	Foru Administrazioa	Departamentuak	Ehiza eta Arrantza Atala	Iruñea
Cesar	Pérez Martín	Foru Administrazioa	Departamentuak	Uraren Zerbitzua	Iruñea
Nekane	Vizcay Urrutia	Foru Administrazioa	Departamentuak	Uraren Zerbitzua	Iruñea
Pedro	Castillo Martínez	GAN		Nafarroako Ingurumen Kudeaketa S.A.	Iruñea
Luis	Sanz Azcarate	GAN		Nafarroako Ingurumen Kudeaketa S.A.	Iruñea
Ana	Varela Álvarez	GAN		Nafarroako Ingurumen Kudeaketa S.A.	Iruñea
Eva	Zaragüeta	GAN		Nafarroako Ingurumen Kudeaketa S.A.	Iruñea

**Aztergaiak**

- Ongietorri, eta bideoa: "PRESAK" Ikus-entzunezko azalpenak
- 17:00 Ibaietako oztupoak ezabatzearen ondorio orokorrak. Luis Sanz. GAN
- 17:15 Izokin arrunta, kolaka, itsas lanproia: proiektuko ekintzek haien populazioarengan zer-nolako eraginkortasuna duten ebaluatzea. Jose Ardaiz. Ehiza eta Arrantza Atala Nafarroako Gobernu
- 18:00 Talde Lana Eztabaida.
- 20:00 Amaiera

### Aurkezpenetan solasgai izanik gaiak

- Ana Varelak **eskerrak eman** dizkie tailerrera bertaratu direnei, eta tailerreko parte-hartzaileen **aurkezpen txanda** egin da.
- Luis Sanzek **aurkezpenean Life Irekibai proiektua laburbildu du**: jarduketa eremua, aurrekariak, egutegia, etab., eta zer-nolako ondorioak izanen diren ingurumenaren aldetik proiektuaren lanekin onura jasoko duten funtsezko espezieetan. Bertze presa batzuk eraistean zer gertatu den azaldu du, eta izokin populazioen aurrekariak ere bai.
- Jose Ardaizek azaldu du zer-nolako jarduketak egingen diren, kontserbazio-ekintzek (dauden oztopoak eraitea) kolakan, itsas lanproian eta izokinean dituzten ondorioak baloratzeko, eta zer-nolako eraginkortasuna duten oztopo jakin batzuetan arrainendako dauden pasabideak.
- Ana Varelak **Parte-hartze Plana** azaldu du, hots, helburuak, parte-hartze mailak, faseak eta parte-hartze Prozesuaren lehen fasean garatu beharreko lan guztiak. Aurreko tailerraren akta onetsi da, parte-hartzaileek ez baitute kontsultarik eta ekarpenik batere egin. Bertan behera utzi da maiatzaren 28rako antolatutako txangoa, ez baitute behar adina lagunek izena eman hainbat arrazoi dela medio, eta huraxe atzeratzea proposatu da. Izan ere, badirudi jendeak interesa duela egiteko, gure auzokideen esperientzia lehen eskutik ezagutzeko.

### Galderen txandan, galdera hauek egin dira:

#### Uraren kalitatea

Galdetu da zergatik agertu diren denbora laburrean alda aunitz Donezteben.

##### Azalpenak:

Ibaian alga gehiago edo gutxiago izanen dira, intsolazioaren eta tenperaturaren arabera, bai eta ibaian dagoen mantengai kopuruaren arabera ere (isurpenek eraginda, adibidez). Zenbat eta handiagoa izan intsolazioa (arrazoi bat izaten da, landaretza estaldurarik ez izatea, zenbait lekutan ibaiertzeko basoa desagertu delako), eta ez badago argia iragaziko duten zuhaitzik, intsolazioa handiagoa da eta tenperatura ere altuagoa; horrek guztiak algen agerpena sustatzen du. Aitzitik, ibaietako uhaldiek ere dute eragina. Uhaldia gertatzen bada, algek berriz ere beren bizitzazikloa hasi behar dute; beraz, halakoetan, alga gutxiago izanen dira.

#### Bertze Zuzendaritza Nagusi batzuen parte-hartzea proiektuan

Pentsatzen da Herri Lanetako Departamentuak proiektu honen Batzordean parte hartu beharko lukeela, errepideak hobetzeko jarduketak proiektu honi berariaz dagozkionekin bateratzeko.

#### Izokina

Galdetu da izokina lehengoratzea ote den proiektuaren helburu nagusia.

##### Azalpenak:

LIFE IREKIBAI proiektuaren xedea ez da bakarrik izokina kontserbatzea, haren helburua baita ibaien zatikatzearen aurka borroka egitea, Bidasoan bizi diren espezie babestuen habitata lehengoratzuz, eta horrela, espezie horien populazioaren kontserbazioa hobetuz.

Galdetu dute ea zenbatu ote daitekeen zenbat izokin gazte askatzen diren zentraletako banaketa ubideetan, eta non askatzen diren.

##### Azalpenak:

Departamentuak honela egiten du lana izokin gazteekin ubideetan: mendizaintzak ubideetako jarraipen sistematizatua egiten du, eta kopuru handia dagoela ikusten denean, zentrala gelditzen da, karga-ganbera husten da, ahalik eta kontu handienarekin ateratzeko, eta ibaira itzultzen dira oztopoaren azpian bertan. Ez dira zuzenean itsasora eramaten, izokin gazteek beren ezaugarriak aldatzen joan behar izaten baitute, ibaiko baldintza dultzeakikoletatik itsasokoetara moldatzeko. Adierazi da, halaber, aurtun Igantziko zentraletik igarotzen diren izokin gazteen zenbaketa "sistematikoa" egiteko prozesuan daudela, kamera bat paratuta, eta gero, zenbat izokin diren

kalkulatzen duen programa batekin irudiak aztertuta. Departamentuko teknikariek jendaurrean eskertu nahi izan dute, lan horietan guztietan zentral hidroelektrikoetatik jaso duten laguntza, eta bereziki, turbinak geldiarazten dituztenean, harrapatuta dauden izokin gazteak ubidetik ateratzeko.

### Arrainendako pasabideen jarraipena egitea

Zalantzak daude presen eraispenak (Endarlatsa eta Bera) ukitzen ote duen arrainendako pasabideen jarraipen ekintza.

#### Azalpenak:

Argitu da arrainendako pasabideen jarraipen ekintza ez dagoela kontserbazio ekintzak (presak eraistea) egitearen mendean, azterlana egiteko modua ezberdina baita oztopo bakoitzerako (datuak oztopo bakoitzaren azpian eta gainean hartzen dira era independentean), eta tokiko espezieekin eginen da. Horrela, aztertuko da arroan ote dagoen lotura duen beste arazorik.

**Zentral Hidroelektrikoak:** Proiektuaren zuzendaritzak jendaurrean eskertu nahi izan du zentral hidroelektrikoen emakidadunen laguntza geldialdiak egiteko, eta horrela, banaketa ubideetan sartzen diren izokin gazteak ez turbinatzeko.

### Taldeetan eginiko lanaren ondotik, gai hauek jaso dira aztertzeko, bai eta proposamen hauek ere:

1. Taldea. Kideak: Xabier Petrirena, Miguel Angel Belza, Iñigo Ballarena eta Imanol Luzuriaga.

#### Azterketa:

- Aurkeztu diren jarraipen ekintzen balorazio ona.

#### Proposamenak:

- Itsas lanproiaren jarraipen ekintzarekin lotua; itsas lanproiarekin egiteaz gain, errekekarekin ere egin dadila.
- Izokinaren jarraipen ekintzarekin lotua: RST tranparen kokapena eta huraxe jartzeko baldintzak aztertzea, iduri baitu arazoak sor ditzakeela uhandietan, ibaiak dakartzan materialen metaketengatik.
- Arrainendako pasabideen jarraipen ekintzarekin lotua: aingirak markatzea, arrainendako pasabideak haientzat irisgarriak ote diren ikusteko.
- Presetan metatzen diren agregakinak garbitzea; zabortegi baimendura eraman behar izan gabe, ibaian bertan isurtzea baizik.

#### Azalpenak:

- Ez daiteke erreka lanproiaren jarraipena egin, espezie hori Orabideko arroan bizi baita, eta LIFE IREKIBAI proiektua Bidasoa ibaiaren arrora bideratua dago. Hala ere, udako laginketetan datuak hartzen dira, baina gaur egun, datuak ez dira lantzen.
- Tranpa paratzeko proiektua egiten da, leku estrategikoetan jartzeko, (ubidearen alderik beherena, zentraletik hurbil, ahalik eta izokin gazte gehienak zenbatu ahal izateko), eta "patinen" gainean paratzen da ibaiaren emarira moldatzeko. Halaber, ainguraketa sistema bat du uhandietarako, eta Departamentua arduratzen da huraxe gobernatu eta haren jarraipena egiteaz, eta dirua baldin bada, metaketak eragozteko neurriren bat paratzea saiatuko da.
- Ez dago aingirak markatzerik igotzen direnean (angulak dira), tamainagatik; hala ere, ibaiertzetako goroldioetan barna igotzen dira, eta are gehiago, "zepillo" bat paratzen ahal zaie igoera hori errazteko (badago bat Ziako errekan, 2010etik aurrera).
- Presetako garbiketari dagokionez, irizpide hori baimenetan sartzen ari da; bolumenaren arabera, zati bat, edota guztia, asko ez bada; adierazten zaie ibaitik hurbil uzteko, ibaiak berak uhandi ohi kanpokoen bidez har ditzan. Galdetu da, halaber, nork erabakitzen du noiz garbitu behar den presa bat, eta erantzun zaio jabea dagoela horretan interesatua, ura banaketa ubideetara hobeki irits dadin. Adierazi da, halaber, presak erabili ez eta lohiz betetzen badira, ingurumenaren aldetik onena izaten da ez garbitzea, baldintza horietan ez baitu deus ere atxikitzen eta uraren gainetik igarotzen baita.

2. Taldea. Kideak: Iñigo Agesta, Sofia Sapuppo, Prudencio Quiroga eta Lorentxo Jaurena

#### Azterketa:

- Jarraipen ekintzak ontzat jo dira.
- Ontzat jo da Leitzaranera bisita egitea, tokiko ikuspuntuak ezagutzeko.

#### Proposamenak

- Nazetako presa (bere osoan) erostea, huraxe eraisteko eta proiektuaren helburuarekin jarraitzeko.
- Izokin birpopulaketak ale gehiagorekin egitea. Horrekin lotuta, eskatu da proba bat egiteko, eta arrain-haztegiara eramateko hartzen diren aleak ibaira itzul daitezela, arroako leku garaiago batean, arrautzak gorago errun ditzaten.
- Aingiraren arrantza debekatzea, populazioak gora egin dezan.
- Eratsungo arrain-haztegi zaharra erabiltzea, han izokina ekoizteko, ura kalitatez arras ona baita.
- Berako uholde orbanak San Martin presa eraitsi ondoren aldatzea eta egoera berrira moldatzea.
- Azterlan bat egitea Endarlatsa eraistek izanen lituzkeen ondorioez, baldin eta Nazetako presa mantentzen bada, ur emariaren baldintzak aldatuko baitira, eta izokinak ez dira ibaiaren beheko tartean geldituko.

#### Azalpenak:

- Argitu da birpopulaketarako izokina ekoizten den arrain-haztegia lan betean ari dela, eta ezin duela gehiago ekoiztu. Horretarako, emeak berreskuratzen saiatzen da, hurrengo urtean erabiltzeko, eta horrela, ibaitik eme gutxiago atera behar izaten da. Probari eta izokinak birpopulatu diren lekuei dagokionez, José Ardaizek erantzun du proba hori aise egin litekeela, baina zaila izanen litzatekeela haren emaitzak jakitea, ez baikenue jakinen manei horrek zer ondorio izanen ote lituzkeen. Adierazi da, halaber, orain arte egindako jarduketa aunitzen, eta IREKIBAI proiektuaren, helburua dela habitata hobetzea (badinak ezabatuz eta arrabaleku berriak sortuz), ibaian populazio handiagoa har dezan, eta izokina bere kasa ugaldut ahal izan dadin, birpopulaketak egin behar izan gabe.
- Aingira arrantza debekatzeko gaiaz erran da aingira arrantzatzea debekatua dagoela Nafarroan Kantauri aldeko arroetan. Eta EBean, debekatua dago angula kanpoaldera esportatzea.
- Berrikitan, Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak Eratsungo arrain-haztegia eraisteko lana baimendu du.
- Endarlatsa eraisteari dagokionez, eta Nazetako presa mantenduta, adierazi da oztopo independenteak direla, eta Endarlatsa eraistek ez duela Nazetako presa ukituko, eta nolana ere, jarduketa hori ona dela izokin populazioa kontserbatzeko, eta ibaiko espezie guztiendako, eta proiektuaren helburuak lortzeko, hots, ibaia hobetzeko.

#### Iruzkinak:

- Ríos con Vida (Jorge Teniente) elkarteak 2000n egindako "txostenean" erraten zen Endarlatsako arrainendako pasabidea oso irisgarria zela, eta Lamuelak 2007an eginiko "txostenean" erraten zen presako badina eremuak direla izo9kinak udan izaten dituen babes eremu bakarrak. Jorge Tenientek adierazi du orain gehiago dakiela 2000n baino, eta orain ikusten du ona dela presa hori eraisteko proposamena.

3. taldea. Kidea: Carlos Gallo, Manuel Germán, Marisol Taberna eta Amaia Angulo

#### Azterketa:

- Proposatutako jarduketak ontzat jo dira.

#### Proposamenak

- Egindako jarraipenen emaitzak argitaratzeko eskatu dute.
- Aingiraren jarraipena egitea.

#### Azalpenak:

- Emaitzak argitaratzeari dagokionez, adierazi da proiektu bakoitzaren bukaeran txosten bat egiten dela, horri buruzko informazioa emateko. Ekintza bakoitzaren emaitzak ikusgai egonen dira proiektuaren webean, eta horrez gain, itzulera jardunaldi bat egingen da, edota parte-hartze prozesuaren bigarren zati bat, datuak erakusteko.

Aingirari dagokionez, arestian erran den bezala, proiektuan ez da haren jarraipenik egingen, baina proiektuan, baina laginketak egiten dira Zerbitzuaren jarduera normalean (2005etik aurrera).

4. taldea. Kideak: Martín Urrutia, Maite Arzuaga, Jorge Teniente eta Alfredo Zugarramurdi.

Azterketa:

- Aurreikusitako jarduketak ontzat jo dira.

Proposamenak

- Kolaka oso espezie hauskorra da, eta aztertu beharko litzateke presen eraispenak haren habitata aldatuko ote lukeen.
- Arrainendako pasabideen jarraipena egiteko ekintzen barnean, emaria neurtu dadila "telepeajea" paratzen den pasabideetan, datuak eskuratzeko, eta arrainek pasabideak zer-nolako emariekin gainditu ditzaketen baloratzeko.

Azalpenak:

- Kolakari dagokionez, adierazi da presak agorraldian eraistea aurreikusia dagoela, eta espezie horren garai kritikoa udaberria dela, hau da, ibaian goiti egiten dutenean errunaldia egiteko.
- Aurreikusia ez bazegoen ere, eta alde zuzenetik oso garestia dela dirudien arren (ekipamenduaren edo mantentzearen kostuagatik), proiektuaren zuzendaritzak konpromisoa hartu du huraxe aztertzeko eta erantzuteko.

Eta saioa bukatutzat jo da, 2016ko maiatzaren 19ko 20:00etan.

## 1. ERANSKINA

1. Txarteletan eta horma-irudian bildutako azterketak eta proposamenak, talde lanaren ondotik.
2. E-mailez eginiko proposamenak eta tailerlean eztabaidatu ez direnak.
3. 4 neurrien balorazioa koloretan (onarpen mailaren galdetegia).
4. Proposamenen laburpena

**1. Txarteletan eta horma-irudian bildutako azterketak eta proposamenak, talde lanaren ondotik.**

	AZTERKETA	PROPOSAMENAK
KOLAKA JARRAIPENA		<ul style="list-style-type: none"> <li>Kolaka suspertzeko gaitasuna aztertzea, haren habitata presak eraistearen ondorioz aldatuko baita.</li> </ul>
ITSAS LANPROIA JARRAIPENA	<ul style="list-style-type: none"> <li>Balorazio ona.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Errekako lanproiaren jarraipena ere egitea.</li> </ul>
IZOKIN JARRAIPENA	<ul style="list-style-type: none"> <li>Balorazio ona.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>“Lavadora” (RST tranpa), kokapena zuzena ote den aztertzea; arriskua uhaldietan.</li> <li>Izokin birpopulaketak (ulertzen da ale gehiagorekin egitea)</li> <li>Izokinak Mugairik askatzea (arrain-haztegi eraman ordeztu).</li> </ul>
ARRAINENDAKO PASABIDEEN JARRAIPENA	<ul style="list-style-type: none"> <li>Balorazio ona.</li> <li>Garrantzitsua da aztertzea nola moldatzen diren arrainak presa gainditzeko.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Aingerei txipa paratzea.</li> <li>Eskalan arrainen jarraipena egitean, emaria neurtzeko gailuak eranstea.</li> </ul>
OROKORRA	<ul style="list-style-type: none"> <li>Ez duzue aingira aipatu, ez da Bidasoko espeziea?</li> <li>Leitzarari bisitatzea, tokiko ikuspuntuak ezagutzeko.</li> <li>Endarlatsako presa Lamuelaren agiriak (2007) presako badinez dio izokinaren aterpe bakarra dela udan.</li> <li>Ríos con Vida 2013; Endarlatsako eskalak, erraten da oso irisgarriak direla.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Agregakin metatuak garbitzeko proposamena; zuzenean ibaira isurtzea, eta ez, zabortege baimendura.</li> <li>Nazetako presa erostea, huraxe eraisteko.</li> <li>San Martin presa eraistean, Berako uholde eremua aldatzea.</li> <li>Azterlana egitea Endarlatsako presa eraitsi baino lehen, eta ikusi ondorioak ur mailan Nazetako presaren eremuan (bertzela, presarik gabe, urik gabe eta izokinik gabe geldituko gara).</li> <li>Zer-nola argitaratuko dira jarraipenak?</li> </ul>


**Ruben Balsateguik igorria, Promotora Aratz 2011. S.L Central Irun-Endara (Las Nazas), maiatzaren 24an.**

Erantsita igorri dizut Espainiako bertze alde batzuetan hartzen ari diren konponbideak (Badajozen, adibidez), eta ez dira Bidasokoak bezain muturrekoak. Inguru horretan azpiegitura aunitz egin dira arazoa konpontzeko. Beharbada, eremu hori bisitatzea joan beharko duzue. Buruz erabiltzen badugu, guztiondako konponbideak bila ditzakegu, eta batez ere, ibaiko espezieentzat. Nik Badajozen bakarrik paratu ditut arrain eskalak: **Badajoz cuenta en el Guadiana con la escala de peces "más novedosa" del país. 2013/12/19** [http://www.elperiodicoextremadura.com/noticias/badajoz/badajoz-cuenta-guadiana-escala-peces-mas-novedosa-pais\\_776198.html](http://www.elperiodicoextremadura.com/noticias/badajoz/badajoz-cuenta-guadiana-escala-peces-mas-novedosa-pais_776198.html) eta [http://www.elperiodicoextremadura.com/noticias/badajoz/badajoz-cuenta-guadiana-escala-peces-mas-novedosa-pais\\_776198.html](http://www.elperiodicoextremadura.com/noticias/badajoz/badajoz-cuenta-guadiana-escala-peces-mas-novedosa-pais_776198.html)

### 3. 4 neurrien balorazioa koloretan (onarpen mailaren galdetegia).

Lan Taldeak zer pentsatzen duen 2. Tailerrean eztabaidatutako proiektuko jarduketez:  
Hurbilketa kualitatibo bat koloretan...

## Grado de aceptación de las medidas/ Neurrien onarpen maia Grupo de Trabajo / Lan Taldea



#### 4. Proposamenen laburpena

Gaia	Zk.	IREKIBAIko jarduketak	Proposatzailea	
			Tailerrean eztabaidagai	Bertze bide batzuk eztabaidarik gabe <sup>1*</sup>
Endarlatsako presa	1.	RST tranparen kokalekua eta baldintzak aztertzea, uhandietan arazorik ez sortzeko.	1. Taldea	
	2.	Azterlan bat egitea Endarlatsa eraisteak izanen litzukeen ondorioez, baldin eta Nazetako presa mantentzen bada, ur emariaren baldintzak aldatuko baitira, eta izokinak ez dira ibaiaren beheko tartean geldituko.	2. Taldea	
Txostenak/Azte rlanak	3.	Arrainendako pasabidearen jarraipena aingirekin ere egitea, espezie horrentzat irisgarriak ote diren ikusteko. Aingirei txipa paratzea.	1. Taldea 3. taldea	
	4.	Kolaka oso espezie hauskorra da, eta aztertu beharko litzateke presen eraispenak haren habitata aldatuko ote lukeen.	4. Taldea	
	5.	Jarraipen jarduketaren emaitzak argitaratzea.	3. Taldea	
Arrainendako pasabideak	6.	Emaria neurtzea (emaria neurtzeko gailuekin), pasabideak gainditzeari buruzko azterlana egiten den pasabideetan.	4. Taldea	

Gaia	Zk.	IREKIBAI proiektuaz kanpoko jarduketak	Proposatzailea	
			Tailerrean eztabaidagai	Bertze bide batzuk eztabaidarik gabe <sup>1*</sup>
Txostenak/Azte rlanak	7.	Errekako lanproiaren jarraipena egitea.	1. Taldea	
Legarrak	8.	Presetako agregakinen garbiketan, ez dadila izan derrigorrezkoa emakidadunentzat zabortege baimendura eramatea, baizik eta ibaian bertan utzi ahal izatea, ibai dinamika berak mugiarazi ditzan.	1. Taldea	
Uholdea	9.	Beran uholde arriskuari buruzko azterlanak egitea, behin San Martin presa eraitsi ondoren, uholde orbanak eguneratzeko.	2. Taldea	
Arrantza	10.	Aingira arrantzatzea debekatzea, espezie horren populazioak berez gora egin dezan.	2. Taldea	
Birpopulaketak	11.	Izokin birpopulaketak ale gehiagorekin egitea.	2. Taldea	
	12.	Proba bat egitea, eta arrain-haztegia ugaltzera eramaten diren aleak Mugairira eraman daitezela, inguru horretan errunaldia egin dezaten.	2. Taldea	
	13.	Eratsungo arrain-haztegia egokitzea izokina ekoizteko (errekako uraren kalitatea arras ona delako).	2. Taldea	
Presak	14.	Nazetako presa erostea, huraxe eraisteko.	2. Taldea	
	15.	Arrain eskalak paratzea Badajoz bisitatzea, eskala jarduketa "berritzailea" ikusteko.		R.B (Nazetako Zentrala)
Besterik	16.	Herri Lanetako Departamentua proiektuaren Jarraipen Batzordera gonbidatzea, errepideak hobetzeko jarduketak proiektu honi berariaz dagozkioneekin bateratzeko.	A.Z	